

ONGI BIZITZEA SUSTATZEKO ALIA NTZAK:

**EMAKUME MIGRANTE ETA ARRAZIALIZATUEN
ESKUBIDEAK DONOSTIAN ETA GIZARTE
MUGIMENDUEKIN ETA TOKIKO ERAKUNDEEKIN
DUTEN HARREMANA**



**Azucena Rodriguez Rodriguezek eta Maria
Alonso del Valek burututako ikerketa, Lumaltik
Herriak elkarteak bultzatua eta Helena
Gonzalez Gonzalezek sistematizatua.**

Ilustrazioa eta Maketazioa: Karin Hernández

Donostia, 2025eko ekaina

2025eko otsailetik ekainera bitartean, Lumaltik Herriak erakundeak bultzatuta eta Azucena Rodríguez Rodríguez eta María Alonso del Valek burututa, bi ikerketa osagarri egin ziren Donostian migratutako eta arrazializatutako emakumeen eskubideen eta hiriko gizarte-mugimenduen eta toki-erakundeen arteko harremanari buruz. 2024. urtean egindako “Ongi Bizitzea Donostian: Kolektiboak eraldaketa sozialerako lanean” ikerketari jarraipena emateko sortutako ikerketa da hau.

Hala, bi **helburu** planteatu ziren, ikerketa bakoitzak erantzungo zituenak, eta, testuinguru desberdinei erreparatu beharrean, dimentsio bakoitzean sakontzea eta gizarte-errealitateari arreta eskaintzea bilatzen zutenak, hainbat ikuspegitatik. Alde batetik, ikerketaren helburua mugimendu sozialek eta tokiko erakundeek emakume migratuekin duten harremana ezagutzea zen, eta, horregatik, jardunbide egokien adibideak bildu nahi ziren, sistema menderatzailea hautsi eta zaintzaren eta Ongi Bizitzearen ikuspegitik aliantzak ehuntzen laguntzeko. Bestalde, beharrezkoa zen ezagutzea eta aztertzea Donostian migratutako emakumeek nola eraikitzen eta esperimentatzen duten Ongi Bizitzea, eta nola eragiten duten gizarte-mugimenduek hura sustatzean, mantentzean edo oztopatzean.

Planteamendu dual horrek errealitate berera hurbiltzeko aukera eskaintzen zuen, baina planteatutako dimentsio ezberdinetan aurki daitezkeen ñabarduren aniztasuna ulertuz. Ikuspegi hori balio erantsia da, aukera eman baitu bi ikerketetan lortutako emaitzak elkarrizketan jartzeko eta hausnarketak eraikitzeko, bildutako ikuspuntu guztiak kontuan hartuta. Txosten honen helburua ikerketen esparrua, haien garapen laburra eta, bereziki, lortutako emaitzak eta gogoetak bateratzea, emakume migratuen eta Donostiako gizarte-mugimenduen arteko harremanari, aliantzei eta erronkei buruzko hausnarketa kolektiboan laguntzeko.



Bi ikerketak **Donostia** hirian burutu dira. Lurralde-testuingurua garrantzitsua da, Donostiak azken hamarkadetan gizarte- eta kultura-dibertsifikazioko prozesua bizi izan baitu, biztanleria migratuaren hazkundearen ondorioz. Aldaketa-joera horren aurrean, udal-politikek harrera- eta inklusio-erantzunak artikulatu nahi izan dituzte, baina tentsioak daude aniztasunaren kudeaketa instituzionalari, integrazio-esparruen mugei eta egiturazko zein eguneroko jarduera arrazisten iraunkortasunarekin lotuta.

Alde horretatik, Donostia hiri-espazio gisa aurkezten da, non bizikidetzako diskurtso instituzionalak eta desberdintasun ekonomikoko dinamikak elkarrekin bizi diren, migratutako pertsoneri, batez ere emakumeei, bortitzago eragiten dietenak. Oztopo linguistikoak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, baldintza duinak dituen enplegu bat izateko zailtasunak eta erregularizazio prozesuen burokratizazioa dira aurre egin behar izaten dituzten ohiko oztopo nagusiak. Euskadin migratutako emakumeek kolektibo heterogeneo bat osatzen duten arren, ibilbide, motibazio eta baldintza sozioekonomiko anitzek markatua, diskriminazioarekin eta lan-prekarietatearekin lotutako esperientziak partekatzen dituzte.

Era berean, horietako askok oinarritzko eskubideak eskuratzea baldintzatzen duen ahultasun administratiboak markatutako gizarte-posizioak dituzte. Hala ere, emakume hauek ez dira soilik sistema baztertzailerik baten biktimak, baita erresistentzia, autozaintza eta antolakuntza kolektiboko estrategien protagonistak ere.



Horrekin batera, errealitate horiek eraldatu nahi dituzten mugimendu sozialak sortu dira, eskubideak, ikusgarritasuna eta justizia soziala sustatuz. Hala ere, oraindik gutxi dakigu borroka horiek emakume migratuen eguneroko bizitzan duten eraginari buruz. Ikerketa hauek, emakume migratuen zein mugimendu eta erakundeetako pertsonen bizipenei erreparatuz, zauri horri heldu eta dagoen ezagutza zabaltzea bilatzen dute.

Ikerketetarako planteatu den **metodologia** bi elkarrizketa-prozesu egituratu abian jartzea izan da, ikuspegi kualitatiboarekin eta ikuspegi kritikoarekin, feministarekin eta interseksionalarekin, paraleloki garatu direnak. Alde batetik, elkarrizketak egin dira lau erakundetako parte-hartzaile eta boluntarioekin. Lehena, Uliako Lore Baratzak (ULB), Donostiako haztegi zaharretako parkean garatzen den proiektua da, eta bere helburua espazio parte-hartzaile bat sortzea da, herritarrek ireki eta bizi ahal izan dezaten. Kaleko Afari Solidarioak (KAS) da beste elkarteetako bat. Duela lau urte hasi zen proiektua da, eta Donostian kaleko egoeran dauden pertsonen afari beroak eskaintzeko lan egiten du.



Prozesuaren parte izan dira, halaber, Esperanza Latina erakundea, laguntza pertsonala, soziala eta legala behar duten familia eta pertsona zaurgarrii edota gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenei laguntzea, migratzaileen arteko topaketarako eta elkarlaguntzarako espazioak sortzea helburu duena. Arrats Elkartearen Txiki Txoko ekimena ere izan dugu gurekin, emakume migratzaileei eta haien familiei babesa eskaintzen diena.

Topaketa horietan gai hauek jorratu ziren: emakume migratuen partaidetza eta inklusioa, aliantzak kolektibitatean eta etorkizunerako erronkak eta itxaropenak.

Bestalde, solasaldi sakonak egin dira migratutako hainbat emakumerekin, eta ikerketa parte-hartzailearen ikuspuntua hautatu da. Izan ere, dimentsio horren aztergaiak, Donostian migratutako emakumeen bizitzak eta arrazakeriaren aurkako gizarte-mugimenduekin duen loturak, errespetuzko hurbilketa eskatzen du, desberdintasun estrukturalekiko sentibera eta

ahots subalternizatuekiko irekia. Posizionamendu horri esker, ikerketa sakon eta konprometitu bat egin daiteke, horizontaltasuneko eta elkarrekiko

errekonozimenduko posizio batetik migra-

tutako emakumeekin hitz egitea

helburu duena. Horretarako, sei

elkarriketa egin ziren nazionalitate desberdinetako emaku-

meekin, batzuk lan-baimena

zutenak, eta beste batzuk

hori lortzeko bidean edo

egoera administratibo irregu-

larrean zeudenak, Donostian

bizi direnak eta 33 eta 55 urte

bitartekoak.



Horiek guztiak adinekoen zaintza, garbiketa eta ostalaritza lanetan aritzen dira, baita hirian dauden gizarte mugimenduetan modu batera edo bestera parte hartzen duten emakumeak ere.

Ikerketa-prozesuari eta egindako elkarrizketen aniztasunari esker, tokiko gizarte-mugimenduen eta erakundeen nahiz emakume migratuen errealitatea aztertu eta ezagutu ahal izan da, haien bizi-egoerari eta tokiko eremu kolektiboetan duten parte-hartzeari dagokienez. Elkarrizketatutako profilak eta elkarrizketen ikuspegia landu beharreko dimentsioetara bideratu diren arren, prozesuak ematen dituen emaitzek antzeko ardatzak, ondorioak eta erronkak adierazten dituzte. Bildutako hausnarketen konplexutasuna hiru eremutan bana daiteke:

**“ONDO BIZITZEA”
BIR-DEFINITUZ,
MIGRAZIO-ESPERIENTZIATIK
ABIATUTA:
DESBERDINTASUNAK ETA
EGITURAZKO ARRAZAKERIAK
MARKATUTAKO
BIZI-BALDINTZAK:**




Ikerketa-prozesua osatu duten elkarrizketen helburua migratutako emakumeen bizipenak ezagutzea izan da, migratutako biztanle gisa dituzten erronka, oztopo eta zailtasun nagusiak, alegia. Alde horretatik, haiek helarazitako esperientziak oso heterogeneoak dira, bizi-ibilbide eta egoera sozioekonomiko desberdinak bizi izan dituztelako, baina puntu komunak marrazten dituen lerro bat antzeman daiteke.

Zailtasun gehien dituzten erronkak, emakumeen esperientzietan behin eta berriz azaltzen direnak, honako hauek dira: lan-prekarietatea eta enplegu formala lortzeko zailtasunak, diskriminazioa eta etxebizitza duina lortzeko zailtasun ekonomikoak, eta, iritsitakoan, ingurune batzuetan jasaten duten kultura-kontrastea eta diskriminazioa.

Illo horretan, elkarrizketatutako emakumeek bizi dituzten diskriminazio-modu esplizitu eta sotilak partekatu zituzten, beren eskubideei eta gizarte-aitorpenari eragiten dietenak.

Gehien agertu ziren esperientziak, batez ere, lan eta etxebizitza arloari buruzkoak izan ziren, eta ikasketak erregularizatzeko eta homologatzeko prozesuetan dituzten oztopoak eta burokratizazioa aipatu ziren, bai eta beren jatorria dela eta jasaten duten lan-segmentazioa ere: publikoki zaintzaile gisa soilik hartzen dira eta beste lan batzuk egiteko ezgaitzat, ordea.

Era berean, elkarrizketatutako emakumeek Ondo Bizitza legalitatetik edo enplegutik harago doan prozesu integral bat bezala ulertzen zuten, iristen diren lurraldean bizitza-proiektuak eraikitze beharrezko biztanle badira ere, ez dira eskusiboak eta nahikoak horiek garatzeko. Emakume askok lasaitasun emozionalaren, segurtasunaren, lotura afektiboen sorreraren, autonomia pertsonalaren beharraz ere hitz egin zuten, baita onarpen sozialaz eta beren identitate kulturalarekiko konexioaz ere.



Horregatik, haien hitzetan, “Ongi Bizitze” hori lortzeko benetako borondate politikoa behar dela uste dugu, haien eskubideak aitortzearen eta bizi-baldintzak hobetzearen alde egingo duena, diskurtsoetan soilik geratuko ez den inklusio eraginkorra, haien ekarpenen parte-hartzea eta aitortza bermatuko duena.

Zaintzea funtsezko lana dela eta horren arabera baloratu eta ordaindu behar dela onartzea, eta beharrezkoa dela, halaber, Donostian bizi diren emakumeen kultura, jakintza eta esperientziak balioetsiko dituen kulturarteko ikuspegi bat izatea, eta ez karitatetik edo tolerantziatik, baizik eta errespetutik, justiziatik eta berdintasunetik.

GIZARTE-MUGIMENDUETAN ETA TOKIKO ERAKUNDEETAN PARTE HARTZEA: ERRONKAK EMAKUMEENTZAT ETA KOLEKTIBOENTZAT:



Ikerketa-prozesuan indarra hartu duen beste puntuetako bat espazio kolektiboetako kide izateak nola indartzen duen emakume migratuen sentimendua eta ikusgaitasuna Donostiako gizartean subjektu aktibo gisa izan da, eta nola ahalbidetzen duen gizarte- eta erakunde-eremuetan entzunak izatea. Ildo horretan, maiz ematen zaien irudi pasiboaren kontra, emakume migratu askok modu aktiboan parte hartzen dute askotariko espazio eta kolektiboetan, eta espazio horietan ekarpenak egiten dituzte beren migrazio-esperientziatik abiatuta, baita komunitatea sortu, informazioa eskuratu eta sareak josten ere beste emakume batzuekin.

Hala ere, bai emakume migratuekin egindako elkarrizketetan, bai Uliako Lore Baratzak (ULB), Kaleko Afari Solidarioak (KAS), Esperanza Latina eta Txiki Txoko kolektiboetako partaideekin egindakoetan, emakumeentzat beraientzat eta erakundeentzat dauden xedeak eta erronkak identifikatu ahal izan dira. Alde batetik, emakumeek adierazten zuten zailtasunik handienak faktore hauek baldintzatzen zituztela orokorrean: etxeko lanak, zainketa-lanak edo akidura emozionalak. Hori kontuan hartuta, zaintza-lanetan ematen diren lanaldi luzeak, lan-prekarietatea eta askok lan egin behar izaten duten barne-langile egoera ziren haien parte-hartzearen oztopo nagusiak.

Puntu hori ere nabarmendu zuten erakundeek, eta “denboraren pribilegioa” funtsezko gako gisa aipatu zuten, espazio kolektiboetan nork bere denbora eskain dezakeen eta nork ez, baldintzatzaileak eta desberdintasunak sortzen dituena. Zenbait erakundek ere kezka eta atsekabea aipatu zuten erakundeetan sortzen diren prekarietate-dinamikekin, non baliabideak ez baitira iristen lantzen dituzten jarduerak aurrera eramateko. Atsekabe sentsazio hori areagotu egiten da, kontuan hartzen baita, askok azpimarratzen duten bezala, Udalaren ardurakoak diren lanak egiten dituztela.

Hala ere, parte hartu zuten erakundeek, boluntarioek eta emakume migratuek ere adierazi zuten kolektibitateari esker martxan jarri direla ekimen egokiak lortu direla.

Esaterako, ULB erakundetik aipatu zuten elikadura pertsona ezberdinen arteko lotura kulturalen sorbide bat dela, eta zentzu horretan, proiektuak partaideen lurralde ezberdinetatik ekarritako haziak elkar trukatzeko leku bat eskaintzen duela, elikagaiei buruzko elkarriketarako eta mintegiak topaketa eta elkartrukerako leku gisa jokatzeko duen bestelako alderdi kulturaletarako. Garrantzitsuak dira, halaber, erakundeen artean abian jartzen diren aliantza eta kolaborazioak, hala nola Txiki Txokok eta KASek sukaldaritza tailerrak elkarrekin egiteko egindako proposamena, non emakumeek elkar topatu eta partekatu dezaketen. Jardunbide egoki horietako beste batzuen arabera, erakundeek gaitasuna dute erronkei aurre egiteko eta beren prozesuetako egunerokotasunean bizi dituzten zailtasunak arintzeko alternatibak sortzeko: jarduera-esparruak zabaltzea eta espazio itxietatik ateratzea, kalera edo etxeetara iristeko, pandemia bezalako egoeretan, Latino Esperanza-tik adierazten duten bezala, edo elkartzeko eta sentsibilizazio espazioak sortzea, emakume migratuek pairatzen duten ezjakintasunari eta estigmatizazioari aurre egiteko.

Parte-hartzearen arloan, garrantzitsua da azpimarratzea, halaber, aurrerapausoak eman diren arren, parte hartu duten emakume migratuen ustez, askotan, egindako lanak asistentzialismotik artikulatzen direla, betiere laguntza behar duten biktimatzat hartuta, eta ez eragile aktibo eta eskubide-subjektu gisa. Ildo horretan, lidergo migratzaile gehiago izatearen beharra azpimarratzen da, bai eta espazio misto eta horizontal gehiago sortzeko beharra ere, non bertakoek eta migratuek jakintzak, borroak eta ekintza komunak partekatuko dituzten.

Donostian migratutako emakumeek, egiturazko oztopoei aurre egiteaz gain, horiek eraldatzeko alternatiba kolektibo eta komunitarioak sortzen dituzte. Gizarte-mugimenduetan parte hartzeak ahalduntzea indartzen du, ekarpenak ikusarazten ditu eta hiri bidezkoago, kulturartekoago eta feministago baterako bideak irekitzen ditu.



ETORKIZUNERAKO ESPEKTATIBAK ETA ERALDAKETA SOZIALA:



Bi ikerketetan, etorkizunerako aldaketa-proposamen eta -eskaerek egiturazko desberdintasun ekonomiko eta sozialari heldu eta ezabatzeko beharra dute, bai eta biztanleria migratuak bizi duen egiturazko eta instituziozko arrazakeriari ere. Ikerketako parte-hartzaileak bat datoz esatean ez dela errealista, ezta erabilgarria ere gizarte-eraldaketaren ikuspegitik, “Ondo Bizitzea” kontzeptuaz hitz egitea, emakume migratu eta arrazializatuentzat gutxieneko bizi-baldintzak ziurtatuta ez daudenean.

Ildo horretan, emakumeek nabarmentzen dute bizitza duin horretara hurbiltzeko funtsezko puntuak honako hauek direla: Atzeritarren Legea indargabetzea, lanegun jasangarriak sustatzea, migrazio-dolua lantzeko laguntza psikologikorako espazioak sortzea, soldata errealetara egokitutako etxebizitza duina eskuratzea bermatzea, eta emakume migratuen ekarpenaren ikusgarritasuna eta onarpen soziala hobetzea. Emakumeen parte-hartze kolektiboaren esparruan, eta jasotako esperientzietatik abiatuta, eraldatze-aukerak honako hauetara bideratzen dira: emakume migratuentzako parte-hartze komunitarioko eremuak zabaltzera, arrazakeriaren aurkako kolektiboek eta kolektibo feministek lidergo migratzaileak barneratzen dituztela bermatzera, eta emakume migratuen alde aurreko jakintzak aitortzera eta baloratzera, praktika asistentzialistak saihestuz.

Bildutako esperientziei, identifikatutako jardunbide egokiei eta ikerketa-prozesuan sortutako eskarien artikulazioari esker, Donostian migratutako eta arrazializatutako emakumeen eskubideen eta horiek gizarte-mugimenduekin eta tokiko erakundeekin duten harremanaren arteko erlazioa karakterizatu ahal izan da. Asko dira emakumeek eta kolektiboek sortutako irakaspenak eta egindako proposamenak, eta agerian uzten dute aniztasuna jasateaz gain, eraldatu egingo den hiri bat eraikitzeko nahia, elkarrekin bizitzeko, partekatzeko eta herritar guztiak errespetatzeko.



